

LEHEN SOROSPENEN IKASTAROAREN DEIALDIAREN ADIBIDE (2019)

Datozen datetan, izaera erdi-presentziala izango duen Lehen Sorospenen ikastaroa eskainiko da Bizkaiaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailaren elkarlanean, Kirol Federakundearen beharrian eta ezaugarrietara egokiturik. Ikastaro honen helburua, etorkizunean **Euskal Autonomia Erkidegoan Kirolarekin Lotutako Lanbideen Lege Proiektuaren 15. artikulua** adierazten duen lehen sorpenetako gutxieneko konpetentzia betetzea erraztea da, boluntarioak sartuta daude.

Ordu kopurua: **30 ordu, horietatik 20 on-line eta 10 aurrez-aurrekoak nahitaezko asistentzia.**

Kurtsoaren hasiera: **Abenduaren 9an.**

Kurtsoaren hizkuntza: **Aukerakoa, euskaraz edota gaztelaniaz, ikasleengatik matrikulatzerakoan AUKERATZEKO. EUSKARAZKO matrikulei lehentasuna emango zaie.**

Aurrez-aurreko eguna: **Abenduaren 28a.**

Aurrez-aurreko orduak: **Larunbata 9etatik 14etara eta 15etatik 20etara.**

Non: **Kirol-technikarien Eskola ASFEDEBI "KITEB" (Martín Barua Picaza 27 bajo, 48003 Bilbo).**

Matrikulazio epea: **Azaroaren 18tik- Abenduaren 4a arte (biak barne)**

Ikastaroaren prezioa: **75€.**

Proiektu honen gainean gehiago jakin nahi baduzu begiratu gure bideoa <https://vimeo.com/312932205> edo gure webgunean sartu www.asfedebi.eus

Informazio guztia: formakuntza@asfedebi.eus / 944.037.800 - 944.423.960

FORMAKUNTZA PLANA

Formakuntza eskaintza ikasleria osoarentzat eskuragarria izan eta beste kirol batzuen ikasketekin, lanarekin edota beste jarduera batzuekin bateragarria izan daiten, formakuntza honek erdipresentziala izaera izango du eta e-learning ikasketa metodoaren bidez burutuko da, aurrez aurreko nahitaezko asistentzia 10 orduko saioak izango ditu, egun bakarrean emango direnak. Ikastaroak 6 asteko gehienezko iraupena izango du.

Formakuntzak ikuspuntu hezigarria izango du, metodo kolaboratiboak, testuinguruan aplikatzeko metodoak eta azalpen metodoak uztartuko direlarik.

Formakuntzari lotutik eskumen orokorrak

Kirol istripu edo jarduera fisikoari eta kirolari loturiko larrialdi une batean artatzea, Larrialdi zerbitzuekin era koordinatuan parte hartuz egoerak ala behartuta.

Formakuntzari lotutako eskumen zehatzak

Lehen artatzailearen rola eta jardute eremuaren mugak identifikatzea, eta baita honen erantzukizun mailak, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Istripua jasan duen pertsonaren ebaluazio, zaintza eta jarraipen teknikak, eta testuingurua eta lehen sorospen teknikak, dagokion oinarritzko bizi euskarri maniobrak burutzea, hasierako diagnostikoa, eboluzioa eta istripua jasan duen pertsonaren ezaugarriak kontuan hartuta, beti ere ezarritako protokoloak jarraituz.

Inguruko segurtasun eta egonkortasun baldintzak identifikatzea eta kontrolatzea, eta baita bere antolakuntza, istripua jasan duen pertsonaren artapena errazteko, arriskuak minimizatu eta lehen artatzaile bezala jokatzeko duen pertsonaren eta berari laguntzen daudenen osotasuna bermatzeko.

Istripu eta larrialdi egoeren aurrean, inguruaren kudeaketan eta kontrolean, zein istripua jasan duen pertsonarengan zein bere ingurukoengan, eta baita ere pertsona laguntzaileen akzio zein portaeretan lidertza eraginkorraren printzipioak.

Ikastaroaren arau orokorrak

Heziketaren parte praktikoaren burutzea lortzeko aukera izateko on-line plataformaren eduki guztiak ikusi behar dira eta ebaluazio-jarduera guztiak gainditu.

Formakuntza osoa gainditzeko alde biak gainditu behar dira, bai atal teorikoa eta bai praktikoa, ikastaro barruan programatutako izaera praktikodun aurrez aurreko ordu guztietara aurkeztea derrigorrezkoa izango delarik.